# [Cast/Eusk] Carta de Patxi Ruiz desde la cárcel de Murcia II

PATXI RUIZ :: 02/06/2020

Escribió la carta antes de ser hospitalizado

**Castellano**

Euskaldun herriari , prisión de Murcia IItik!!

También dirigida a tod@s los pres@s politic@s, sin distinciones en cuanto a la organización en la que militaba, o siguen militando, así como a l@s activistas sociales encarcelad@s y pres@s sociales. Las imposiciones que, tanto instituciones penitenciarias como la prisión de Murcia 2, han tomado en contra de los derechos (algunas imposiciones que vulneran derechos fundamentales recogidos en su propia constitución española)de los pres@s, con motivo de la llamada pandemia del coronavirus .(Que no es más que otro ataque imperialista contra la población). No nos vamos a engañar, la prisión está erigida para encerrar en ella a aquellas personas que, victimas del monstruo llamado capitalismo, han nacido y “se han criado” en guetos y zonas marginales, con todo lo que ello conlleva de modo de vida: delincuencia, consumo de drogas etc.; pero también la prisión fue creada para encerrar en ella a todo tipo de disidencia política que lucha y/o ha luchado contra el capitalismo, mediante la lucha de masas, mediante nuestra lucha armada, o sindical, política y social, construyendo los muros que nos encierran para que vuestra podrida sociedad tenga más fácil el olvido de l@s que nos encontramos prisioner@s dentro de los muros del olvido y del exterminio.

Sin alargarme más y, a raíz de las imposiciones aplicadas en el conjunto de las prisiones dispersas a lo largo y ancho de la península ibérica, e islas Baleares y Canarias, sin olvidar el total abandono por la criminal Administración Penitenciaria, un grupo de presos que nos encontrábamos en el modulo-8 de la prisión de Murcia 2 tanteábamos la posibilidad de realizar algún tipo de protesta que denunciara nuestra situación de total abandono por parte de la Administración Penitenciaria, protesta que, a la misma vez, sirviera para denunciar y reivindicar los derechos vulnerados y que, según el reglamento penitenciario así como la CE, nos corresponden de la misma manera que corresponden a la sociedad que vive, y sobrevive, en “libertad relativa”, ahí fuera en la calle.

El pasado 3 de Mayo, en el corcho del modulo 8 donde de manera legal los presos ponen anuncios(y otro tipo de cuestiones)aparecieron 2 carteles, de tamaño DIN-A4 cada uno, donde se hacía un llamamiento a concentrarse diariamente en el patio de la prisión, de 09:15 a 09:30 horas, SIEMPRE de manera PACIFICA, RESPETUOSA y en SILENCIO, pudiendo leerse en dichos carteles las reivindicaciones tales como:

Excarcelación de aquellas personas presas con enfermedades graves e incurables, así como la de aquellas personas presa que estaban cerca de extinguir su condena.

La realización de test que detectan el coronavirus a toda la población reclusa como al colectivo de carceleros y carceleras(ya que hasta la fecha no se han realizado)

Que cuando un familiar de un preso falleciera a consecuencia del coronavirus, fuera permitida la salida del familiar preso al cementerio para despedirse, con dignidad de su ser querido.

– Que se nos proporcionara los medios necesarios para evitar el contagio del coronavirus proporcionándose guantes, mascarillas, gel desinfectante etc.

-Que se tomaran las medidas adecuadas para poder volver a estar con nuestros familiares, restaurando las visitas y vis a vises suspendidas desde Marzo. (Si a los funcionarios no se les realizan los test de detección del coronavirus y estamos en contacto continuo con ellos las 24h del día, ¿Por qué no podemos estar con nuestros familiares?!

El día 4 de Mayo se realizo en el patio der la prisión, tal y como se establecía en el cartel antes citado, dicha concentración que fue llevada a cabo en silencio, con el debido respeto y de forma pacífica, portando varios presos carteles reivindicativos, sin que se produjera INCIDENTE alguno. Dichas concentraciones se repitieron los días 5, 6, 7, 8 de la misma manera que ha sido explicada.

Pero el sábado día 9, el carcelero y maltratador jefe de modulo 8, junto a la carcelera que prestaba servicio dicho día, ya se encontraban en el patio para las 9:00 de la mañana, como evidente forma de coacción. A pesar de ello, unos 70 presos tuvimos el coraje de salir a concentrarnos como veníamos haciendo, sin caer en las provocaciones por parte de los citados carceleros.

Esa misma mañana, después de comer y cuando procedíamos a subir a las celdas, la citada carcelera retuvo solamente a los 2 presos políticos del modulo con la intención de requisar nuestros carteles reivindicativos. El compañero no lo tenía encima y yo lo tenía guardado en mi bolsa de deporte, como así se lo indiqué. Ella procedió a abrir la bolsa de deporte y requiso dicho cartel. En ese momento le indique que, presuntamente, estaba actuando al margen de la ley, vulnerando presuntamente artículos fundamentales de la constitución Española por lo que, procedí a pedirle su número de identificación (que por su obligatoriedad debe portar a la vista, mediante su prendedor) .Ello ocurrió sobre las 13:45 aproximadamente. Todo ello quedo grabado por las cámaras de video-vigilancia ubicadas en la oficina central y en los pasillos de la sala común del modulo 8.

Una vez todos los presos estuvimos encerrados en las celdas que ocupamos, sobre las 14:05 aproximadamente, se produjo la apertura de la celda que ocupo en solitario, presentándose en ella los antes citados carceleros, portando en la mano, ambos, las tarjetas identificativas. Yo me limité a tomar la identificación de la carcelera que procedió a la requisa

del cartel reivindicativo, indicándole al carcelero jefe del modulo 8 que la suya no la necesitaba. Pero éste, de manera amenazadora, me exigió que tomara también su identificación, ”por ser él quien había dado la orden de requisa del cartel”.

Procedí a anotar su número identificativo y, a continuación procedió a amenazar mi integridad física. Al pedirle explicaciones sobre las amenazas vertidas contra mi persona, con porte amenazante volvió a encararse profiriendo mas amenazas contra mi integridad física. Acto seguido se fueron y quede encerrado en la celda que ocupaba, la nº71.Todo lo

ocurrido quedo grabado por la cámara de video-vigilancia ubicada en la segunda planta de celdas, a escasos 5 metros de la celda nº71.

Como medio de protesta política, NO DE COACCIÓN, utilicé sobre las 17:00 una cuchilla de afeitar para autolesionarme y denunciar el trato amenazante del carcelero antes citado, provocándome 3 cortes en mi brazo izquierdo de unos 6/7 centímetros de longitud; minutos después fui llevado a la enfermería de la prisión donde una enfermera procedió a la cura y saturación de las heridas por medio de 9 grapas metálicas (agrapajes).

El médico presente en ese momento, sobre las 17:15, se negó a atenderme, ni siquiera procedió a la observación de las heridas. Yo le solicité que realizara el correspondiente informe médico ante lo cual se negó, indicándole al funcionario presente en la sala de curas de la enfermería que me llevara de vuelta al módulo. En ese momento le solicite me facilitara su nº identificativo a lo cual se negó, indicando nuevamente al funcionario de enfermería “Llévese a este mierda lejos de mi vista”. Todo quedo grabado por la cámara ubicada en la sala de curas de la enfermería.

Me devolvieron al modulo 8 y me encerraron en la celda que ocupaba, hasta las 19:00 aproximadamente en la que se produjo la apertura de la celda para que pudiera bajar a cenar. En ese momento me dirigí al carcelero jefe del modulo 8 para entregarle una instancia donde se explicaba que las autolesiones realizadas tuvieron una motivación de denuncia política y no de coacción de ningún tipo. Dicho carcelero maltratador se negó a recepcionar dicha instancia, porque en ella hacia constancia de las amenazas vertidas contra mi persona.

Después de cenar, nuevamente volvimos a subir a celdas sobre las 20:00 aproximadamente; dado que me encontraba nervioso y cansado me metí en la cama con intención de descansar. Pero nuevamente, sobre las 21:00 (no recuerdo con exactitud) la puerta de la celda que ocupo volvió a abrirse, con el evidente sobresalto para mi persona, personándose un carcelero y una carcelera para indicarme que debía bajar a la sala donde educadores y trabajadores sociales realizan ”su trabajo” siempre en contra de de los derechos

de l@s pres@s. En un principio me negué a bajar porque esa sala también es utilizada para amenazar y golpear a los presos, puesto que dicha sala no hay cámaras de video vigilancia. Así se lo hice saber, pero me respondieron que endicha sala me esperaba el DIRECTOR de la prisión. Entonces accedí a bajar.

Para entrar en dicha sala hay que atravesar un pequeño pasillo donde sí hay cámaras de video vigilancia, por ello solo puede probarse que yo entraba en la sala anteriormente citada. En ella se encontraba, además del Director, el sub director de seguridad y un jefe de servicios.

Mantuvimos una conversación que duraría unos 20 minutos en los que solo habló el director de la prisión.

En dicha conversación el Director profirió veladas amenazas contra mi persona, diciéndome que yo era el cabecilla de las concentraciones, que dichas concentraciones podrían ser consideradas como intentos de provocar motines, haciéndome ver las consecuencias

personales que pudieran recaer en mi situación penitenciaria (me han tenido 15 años encerrados en módulos de régimen cerrado y en galerías de aislamiento, siempre clasificado en 1er grado). Yo le rebatí sus veladas amenazas haciéndole entender que las concentraciones que realizábamos los presos son derechos que vienen recogidos en la Constitución Española, tales como el de derecho de reunión, libertad de expresión y otros.

Me indicó que pusiera fin a dichas concentraciones a lo que yo le respondí que esa petición no estaba en mis manos, pero haciéndole saber que yo, aunque fuera el único, seguiría saliendo al patio a concentrarme. En ese momento el Director dio por concluida la reunión, y yo cuando procedía a subir las escaleras hacia la celda que ocupo, desconozco que carcelero fue y desde que lugar se produjo (a mis espaldas, ¿desde dentro de la oficina de carceleros?) escuché perfectamente profería lo siguiente: ”Este mierda no sabe que a veces los presos se echan a dormir y ya NO despiertan nunca más”. Tras oír semejante expresión me tumbe en la cama, pero a los 15 minutos, nuevamente se produjo la apertura de la celda que ocupo, como puede comprobarse por la cámara de video vigilancia ubicada en la 2ºplanta, a escasos metros de la celda que ocupo, presentándose 2 carceleros, una carcelera y el jefe de servicios de nombre Patricio, indicándome que recogiera mis pertenencias porque iba a ser cambiado de modulo. Sobre las 22:00 horas, o minutos antes, fui trasladado al modulo 6 donde me encuentro en la actualidad.

Ante la expresión antes citada ”Este mierda no sabe que a veces los presos se echan a dormir y ya NO despiertan nunca más”, tengo que aclarar que en los casi 15 años de reclusión de régimen cerrado y galerías de aislamiento, he comprobado en persona como varios presos han amanecido muertos en sus respectivas celdas, he visto como se personaba el juez para el levantamiento del cadáver y TENGO LA CLARA CONCLUSIÓN que en algunos casos los muertos se han suicidado por no soportar las amenazas contra su vida, que a veces he sido testigo, que en otras ocasiones se han suicidado por problemas psicológicos, y en otras ocasiones hemos tenido el presentimiento de que han sido responsables directos los propios carceleros. Las galerías y celdas de aislamiento son auténticos lugares de impunidad contra l@s pres@s.

Incluso dichas dudas han existido cuando han aparecido presos políticos muertos. Ante esta situación las razones antes citadas serán dirigidas al Sr Castro titular del juzgado central de vigilancia penitenciaria.

Yo tengo una amatxo de 73 años y nunca dejaría que torturara su mente en los años que le quedan, preguntándose si yo mismo me he quitado la vida o han sido los carceleros. Por ello escribo esta carta para que se haga pública y se sepa la realidad que se vive en las cárceles, la lucha del módulo 8 ante las no medidas de la cárcel contra el coronavirus y las amenazas contra mi persona. Por último, expresar todo mi amor a l@s luchador@s que siguen en pie.

**ESPETXEAK APURTU!!!!**

**GORA EUSKAL HERRIA INTERNAZIONALISTA ETA SOZIALISTA**

**Euskera**

Euskaldun herriari, Murztia II espetxetik!

Gutun hau preso politikoei zuzenduta dago, edozein (izan) dela ere beren erakundea, baita giltzapetuta dituzten ekintzaile sozial edota preso arruntei. Gutun honen helburua hala Espetxe Administrazioak, nola Murtzia II espetxeak presoen oinarrizko eskubideen aurka (euretako asko beren konstituzio espainolean jasota daudenak) daramatzaten inposizioak salatzea da, koronabirusaren pandemia aitzakiatzat hartuta, betiere. Ez gaitezen engaina, kartzela kapitalismoa deritzon mustroaren biktimak giltzapetzeko asmatutako tresna da, ghetto eta inguru baztertuetan sortu nahiz hazi direnak zanpatzeko, hain zuzen ere. Horrek guztiak bizimoduan dituen ondorioekin, jakina: Delinkuentzia, droga kontsumoa, etab. Baina, era berean, kartzela kapitalismoaren aurka borrokatzen den disidentzia politikoa giltzapetzeko asmatu zen, bere adierazpide guztietan: masa borroka, gure borroka armatua, borroka sindikala, politikoa edota soziala. Borroka hauen guztiak giltzapetzeko harresiak eraiki dituzte zuen gizarte ustelak preso gauzkatenon memoria ahaztea errazago eduki dezan, ahanzturaren eta hondamen harresi hauen artean.

Luzamendutan aritu gabe, jakinarazi nahi dut Murtzia II espetxean gauden preso batzuek gure erabateko abandonu egoera, zeina salbuespenik gabe errepikatzen den Iberiar Penintsulan, Balear Uharteetan eta Kanarietan sakabanatutako espetxeetan, salatzeko protestak aurrera eramatea generabilela buruan. Protesta horrek, halaber, urratutako eskubideen aldarrikapena egiteko balio behar zuen. Izan ere, espetxe araudian eta CEn jasotzen denez, kalean “askatasun erlatiboan” bizi den gizarteari dagozkion eskubide berberak baitagozkigu geuri ere.

Maiatzaren 3an, 8. moduluko kortxoan, zeinetan presoek iragarkiak eta bestelako kontuak jartzen baitituzten, bi kartel agertu ziren, DIN A4 neurrikoak, BETI modu BAKETSUan eta ISILTASUNean egunero kontzentratzera dei eginez. Kontzentraziorako deia 09:15etik 09:30era zen. Era honetako aldarrikapenak irakur zitezkeen bertan:

Gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten presoak askatzea, baita kondena betetzear dutenak ere.

Preso guztiei koronabirusa detektatzeko testak egitea, baita espetxezainei ere; izan ere, orain arte ez baitira egin.

Preso baten senitartekorik hilez gero, presoari hilerrira joateko baimena ematea, hurko maiteari duintasunez azken agurra eman ahal izateko.

Presoei koronabirusagatiko kutsatzea saihesteko bitartekoak eskaintzea, hala nola: eskularru, musuko, gel desinfektantea, etab.

Martxoaz geroztik bertan behera zeuden bisita eta buruz burukoak berrezartzea, geure senitartekoekin egon ahal izateko. Egunero gurekin dauden espetxezainei koronabirusa detektatzeko testak egiten ez badizkiete, zer dela eta ez dugu eskubiderik geure senitartekoekin egoteko?

Arestian aipatu eta kortxoan ageri zen kontzentrazio deialdia maiatzaren 4an egin zen, erabateko isiltasunean, begirune osoz eta modu baketsuan. Zenbait presok aldarrikapen kartelak zeramatzaten, eta horrek ez zuen inolako liskarrik eragin. Kontzentrazio honek segida eduki zuen, maiatzaren 5etik 8ra, azaldu berri dugun modu berean.

Maiatzaren 9an, larunbatean, haatik, 8. moduluko espetxezain arduradun tratu-txar emailea eta egun hartan laneko zegoen beste emakumezko bat 09:00etarako patioan zeuden, indarkeria keinu nabarmenean. Hala eta guztiz ere, 70 preso inguruk kontzentrazioarekin aurrera jarraitzeko ausardia eduki genuen, ordura arte bezalaxe, aipatutako espetxezainen probokazioetan erori gabe.

Goiz hartan, bazkaldu ondoren eta ziegetara gindoazela, lehen aipatutako espetxezain emakumezkoa moduluko 2 preso politikoongana hurbildu zen protestan erabilitako aldarrikapen kartelak kentzeko asmoz. Nire kideak ez zeraman kartelik aldean eta nik, berriz, kirol poltsan neukan. Halaxe adierazi nion. Espetxezainak kirol poltsa ireki eta kartela hartu zuen. Une hartan, adierazi nion ustez legez kanpoko ekintza egiten ari zela eta, ustez, konstituzio espainoleko oinarrizko eskubideak urratzen. Hortaz, identifikazio zenbakia eskatu nion (legez begi-bistan eraman behar duena). Hau guztia 13:45 aldera gertatu zen eta grabatuta geratu, bulego zentralean eta korridoreetan kamerak baitaude.

Presoak geure ziegetan ginela, nire atea ireki eta 14:05 aldera aipatutako bi espetxezainak agertu ziren, niri kendutako kartela eskuan eta identifikazio txartelak erakutsiz. Nik egin nuen bakarra kartela kendu zidan espetxezainaren identifikazio zenbakia jasotzea izan zen. Espetxezain arduradunari harena ez nuela behar adierazi nion. Azken honek, ordea, larderiaz, bere identifikazioa ere jaso nezan esan zidan, “hark eman baitzuen kartela kentzeko agindua”. Haren identifikazioa jasotzen ari nintzela, mehatxuka hasi zitzaidan. Jarrera horregatik kontuak eskatu nizkionean, berriro ere larderiaz, mehatxu egin eta parez pare jarri zitzaidan. Jarraian, bi espetxezainek alde egin eta bakarrik geratu nintzen, 71. zenbakidun ziegan. Hau guztia grabaturik gelditu zen, kamera bat baitago ziegen bigarren solairuan, 71. zenbakidun ziegatik 5 metro eskasera.

Protesta ekintza gisa eta, sekula ere ez mehatxu ekintza modura, 17:00ak aldera bizarra egiteko lama bat erabili nuen autolesionatu eta lehen aipatutako espetxezainaren tratu mehatxagarria salatzeko. 6/7 cm inguruko 3 ebaki egin nituen ezker besoan. Minutu batzuk geroago, erizaindegira eraman ninduten. Bertan, zauriak sendatu eta ixteko 9 grapa metaliko jarri zizkidaten.

Bertan zegoen medikuak, 17:15 aldera, uko egin zion ni artatzeari. Zauriei begiratu ere ez zien egin. Nik mediku txostena egin zezan eskatu nion baina hark uko egin zion, bertan zegoen beste funtzionarioari modulura eraman nintzan aginduz. Une hartan, identifikazio zenbakia eskatu nion. Honi ere uko egiteaz batera, funtzionarioari “kaka-mengel hau [bere] begi-bistatik urruti” eramateko agindua eman zion. Hau guztia erizaindegiko arta-gelako kamerak grabatu zuen.

8. modulura eraman ninduten eta nire gelan giltzapetuta eduki, harik eta 19:00etan afaltzera joan ahal izateko ziegako atea ireki zidaten arte. Espetxezain arduradunarengana jo nuen instantzia bat entregatzeko, zeinetan azaltzen nuen neure buruari eragindako zaurien helburua salaketa egitea zela, ez inori mehatxu egitea. Aipatutako espetxezain tratu-txar emaileak uko egin zion nire instantzia jasotzeari bertan neure aurka eginiko mehatxuen berri ematen zelako.

Afaldu ostean, ziegetara itzuli ginen atzera ere, 20:00ak aldera. Nekatuta eta urduri nengoenez, oheratu egin nintzen, atseden hartzeko asmoz. Baina, berriro ere, ondo

gogoratzen ez badut ere 21:00ak izango zirela uste dut, atea ireki eta espetxezain gizon-emakume bana agertu zen, langile eta hezitzaile sozialek "beren lana" (beti presoen eskubideen aurkakoa) egiten duten gelara jaisteko esanez. Hasiera batean uko egin nion gela hori presoak mehatxatu eta jotzeko erabiltzen delako; gela horretan ez baitago kamerarik. Halaxe jakinarazi nien, baina berehala erantzun bertan espetxeko zuzendaria nuela zain. Orduan, jaistea onartu nuen.

Gela horretan sartzeko, korridore txiki bat zeharkatu egin behar da, zeinetan kamerak dauden; hortaz, froga daitekeen bakarra da aipatu berri dudan gela horretan sartu nintzela. Bertan, zuzendariaz gain, segurtasun zuzendariordea eta zerbitzu burua zeuden.

20 minutu eman genituen hizketan eta zuzendariak baino ez zuen hitz egin. Elkarrizketa horretan, zuzendariak gorde-antzeko mehatxuak egin zizkidan, kontzentrazioetako burua neu nintzela esan, berauek matxinada antolatzeko saiakeratzat har zitezkeela azpimarratu eta horrek guztiak nire espetxe egoeran eduki zitzakeen ondorioak ikusarazi nahirik (15 urtez eduki naute erregimen itxiko moduluetan giltzapetuta, baita isolamendu galerietan ere, 1. graduan sailkatuta betiere). Nik bere gorde-antzeko mehatxuei aurre egin nien presoon kontzentrazioak Espainiako Konstituzioak jasotzen dituen eskubideak direla ulertarazi nahirik; hala nola: Biltzeko eskubidea, adierazpen eskubidea eta beste.

Kontzentrazio horri amaiera eman niezaien agindu zidan, zeinari erantzun nion hori ez zegoela nire esku. Bakarra banintz ere, patiora atera eta kontzentratzen jarraituko nuela ere adierazi nion. Une hartan, zuzendariak bukatutzat eman zuen bilera. Ziegara itzultzeko eskailerak igotzeari ekitekotan nengoela, nire atzealdean eta ez dakit zein espetxezainek, honakoa esan zuen: "Kaka mengel honek ez daki batzuetan presoak oheratu eta ez direla sekula berriro esnatzen". Esaldi hau oraindik buruan bueltaka nerabilela, ohean etzan nintzen baina 15 minutura, berriz ere nire ziegako atea ireki egin zen, 2. solairuan eta nire ziegatik metro gutxira dagoen kameran konproba daitekeenez. Bi espetxezain aurkeztu ziren, emakumezko bat eta Patricio izeneko zerbitzu burua. Nire aferak hartzeko esan zidaten, beste modulu batera eramango ninduten eta. 22:00ak aldera, 6. modulura ekarri ninduten. Bertan nago orain.

Lehen aipatutako esaldiaren harira, hau da, "Kaka mengel honek ez daki batzuetan presoak oheratu eta ez direla sekula berriro esnatzen", argitu beharra daukat erregimen itxian eta isolamendu galerietan giltzapetuta daramatzadan 15 urteotan, ikusi ahal izan dudala preso batzuk egunsentian hilda zetzatela beren ziegetan. Halaber, ikusi dut epailea nola bertaratzen zen hilotza jasotzera eta ARGI DAUKAT, kasu askotan, beren buruaz beste egin dutela mehatxuak jasan ezinik, ni neu naiz mehatxu horien lekuko. Beste batzuetan, arazo psikologikoen ondorioz hil dute beren burua baina, beste batzuetan, espetxezainek erantzukizun zuzena izan dutelako susmoa dugu. Isolamendu ziega eta galeriak presoen aurkako erabateko inpunitate eremuak dira. Zalantza berberak azaleratu izan dira preso politikoak hilda agertu direnean ere. Egoera honen aurrean, hemen adierazitako arrazoiak Castro epaile jaunari, Espetxe Zaintzako Epaitegi Zentraleko titularrari, helaraziko dizkiot.

73 urteko *amatxo* bat daukat eta inoiz ez nioke utziko bere burua tortura dezan galdezka ea neuk hil dudan nire burua ala kartzelazainek egin duten. Horregatik idatzi eta egiten dut publiko gutun hau; espetxeetan bizi dugun errealitatea azaleratu, koronabirusaren aurka

hartu ez diren neurriak salatu eta egin dizkidaten mehatxuen berri eduki dezazuen. Bukatzeko, neure maitasun guztia adierazi nahi nieke zutik dirauten borrokalari guztiei.

**ESPETXEAK APURTU!**

**GORA EUSKAL HERRIA INTERNAZIONALISTA ETA SOZIALISTA!**

---

*https://eh.lahaine.org/cast-eusk-carta-de-patxi*